

ADINGABEEN BABES SISTEMA GIPUZKOAN: GERTURAPEN BAT ADOPZIORA

GRADU AMAIERAKO LANA

GIZARTE HEZKUNTZAKO GRADUA

HEZKUNTZA, FILOSOFIA ETA ANTROPOLOGIA FAKULTATEA

UPV/EHU

Egilea: ANE CALEGAIN NOGUERA

Zuzendaria: JON DIAZ EGURBIDE

Deialdia: 2024KO OTSAILA

LABURPENA

Gradu Amaierako Lan honetan Gipuzkoako adingabeen babes sistemaren eta, bereziki, babes sistema horren barruan kokatzen den adopzioaren inguruko ikerketa bat egin dut. XX. mendearen hasieratik gaur egunera arte aldaketa asko jasan ditu adingabeen babes sistemak, eta Fraisoroko sehaska etxea aldaketa horien guztien testigu izan da. Era berean, Gipuzkoan XX. mendean izandako esperientziarik garrantzitsuenak izan zen Fraisorokoa. Adopzioari dagokionez, antzinetatik existitzen den praktika izan arren, ez zen babes neurri gisa inplementatu aurreko mendera arte. Ibilbide laburra izanagatik ere, azken hamarkadetan emandako garapena oso handia izan da, hainbat arrazoi tarteko: nazioarteko legedia, adingabeen interes gorena adingabeen babes sistemaren ardatz gisa, prebentzioaren garrantzia... Gaur egun elementu berri batzuk mahaigaineratzen ari dira, hala nola jatorriekiko loturen garrantzia eta hausturek hurrengan dituzten ondorioak. Hori horrela, eztabaida berriak sortzen ari dira adopzioaren inguruan, eta beraz, hurrengo hamarkadetan ere aldaketak etorriko direla dirudi.

Hitz gakoak: Haurtzaroa, adopzioa, haurren eskubideak, haurtzaroaren ongizatea, gizarte zerbitzua

RESUMEN

En este Trabajo de Fin de Grado he realizado un estudio sobre el sistema de protección de menores en Gipuzkoa y, en particular, sobre la adopción que se enmarca en dicho sistema de protección. Desde principios del siglo XX hasta la actualidad el sistema de protección de menores ha sufrido muchos cambios y la casa cuna de Fraisoro ha sido testigo de todos ellos. Asimismo, Fraisoro fue la experiencia más importante de Gipuzkoa en el siglo XX. En cuanto a la adopción, a pesar de ser una práctica existente desde la antigüedad, no se implementó como medida de protección hasta el siglo pasado. A pesar de su corta trayectoria, el desarrollo experimentado en las últimas décadas ha sido muy importante debido a la legislación internacional, el interés superior de menores como eje del sistema de protección de menores, la importancia de la prevención... En la actualidad se están planteando nuevos elementos como la importancia de la relación con los orígenes y las consecuencias de las rupturas en los niños. En este sentido, se están generando nuevos debates en torno a la adopción, por lo que parece que en las próximas décadas se producirán nuevos cambios.

Palabras clave: Infancia, adopción, derechos del niño, bienestar de la infancia, servicio social

ABSTRACT

In this Final Degree Project I have carried out a study on the child protection system in the province of Gipuzkoa focusing in particular on adoption, which is part of this protection system. From the beginning of the 20th century to the present day, the child protection system has undergone many changes and the Fraisoro orphanage, the most important experience associated with adoption in Gipuzkoa, has witnessed all these. Adoption, despite being an ancient practice, was not implemented as a protection measure until the last century. Despite that short history, its development is relevant

considering, for example, the international legislation, the best interest of minors becoming the centre of the child protection system or the increasing importance of prevention. At present, there are new elements to be considered, such as the importance of the relationship with the origins of each one and the consequences of break-ups on children. In this sense, new debates are emerging around adoption, which makes us think that the coming decades will bring about big changes.

Key words: Childhood, adoption, rights of the child, child welfare, social services

AURKIBIDEA

1. SARRERA	4
2. METODOLOGIA	5
3. MARKO TEORIKOA	7
3.1. Babes sistema Gipuzkoan: hurbilpen historikoa	7
3.2. Adingabeen babes sistema gaur egun	11
3.2.1. Adingabeen babes sistema Espainiako legedian	12
3.2.2. Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) legedia	13
3.3. Babes sistemaren egitura Gipuzkoan	15
3.3.1. Babesgabetasuna eta adingabeen interes gorena	17
3.3.2. Babesgabetasuna zenbakitan	19
3.4. Adopzioa	19
3.4.1. Adopzioa babes neurri gisa	20
3.4.2. Haur adoptatuen errealitatea	22
3.4.3. Adopzio irekia	25
3.5. Azken urteetako adopzioaren bilakaera Gipuzkoan	26
4. ONDORIOAK	27
5. EZTABAIDA: ADOPZIOAREN ETORKIZUNA	30
6. BIBLIOGRAFIA	34
6.1. Erreferentzia bibliografikoak	34
6.2. Legeak	37
7. ERANSKINAK	39

1. SARRERA

Gradu Amaierako Lan honetan Gipuzkoako adingabeen babes sistema aztertuko dut, eta bereziki adopzioak bertan jokatzeko duen paperean sakonduko dut, adopzioaren errealitatea mahaigaineratzen saiatuz. Helburu nagusia beraz, adopzioaren egoera Gipuzkoan ezagutzera bidean ekarpena egingo duen lan akademikoa egitea da.

Gizartearen zati handi batek adopzioaren berri duela dio, badakiela zer den. Are gehiago, ohikoa da gure inguruan adoptatu edo adoptatzailearen bat ezagutzeko. Hala ere, adopzioaren inguruan gizarteak duen kontzepzioa errealitate oso urrun dagoela uste dut. XXI. mendearen hasieran nazioarteko adopzioa oso entzutetsua izan zen, eta gaur egun ia desagerturik badago ere, imajinario kolektiboan nazioarteko adopzioa da nagusi. Horrez gain, guraso izateko beste modu bat bezala ulertzen dute zenbaitek adopzioa, babesgabetasun egoeran aurkitzen diren haurrentzako babes neurri gisa ulertu ordez. Eta hori guztia gutxi balitz, oso jende gutxi da adopzio prozesu batek dituen zailtasun guztien kontziente. Orokorrean adopzioaren inguruko ezjakintasun handia dagoela uste dut.

Nire praktikak Lotunen egin nituen, Gipuzkoan adopzioa sustatzeko programan. Ordura arte adopzioaren inguruan nuen ulerkera oso mugatua zela ohartu nintzen, eta hilabete horietan guztietan niretzat berria zen errealitate bat ezagutu nuen. Hori da, hain zuzen ere, gai hau lantzearen arrazoia: niretzat deskubrimendu bat izan zen hori besteei helarazi nahi diet, adopzioaren errealitatea ezagutarazteko nire ekarpena egin, finean.

Lanak hainbat atal desberdin ditu. Alde batetik, Gipuzkoan adingabeen babes sistemaren eta adopzioaren bilakaera historikoa aztertu dut, XX. mendearen hasieratik gaur egunera arte. Ondoren, gaur egun adingabeen babes sistema Gipuzkoan nola egituratzen den aztertu dut, baita adopzioaren gaur egungo errealitatean sakondu ere. Horren ostean, mende batean emandako aldaketak aztertu ditut, eta horretarako ezinbestekoak izan diren faktoreak mahaigaineratu ditut. Amaitzeko, adopzioko profesional desberdinen iritziak jasoz, adopzioaren etorkizunari buruzko eztabaida bat proposatu dut.

Aipatzekoa da gizarte hezkuntzako Gradu Amaierako Lana historiako irakasle baten zuzendaritzapean egin dudala, eta horrek eragin zuzena izan duela lanaren planteamenduan, ikuspegi historikoari garrantzia eman diodalarik.

2. METODOLOGIA

Nire lana dokumentuen analisisan oinarritzen da, eta ikerketa proposamena kualitatiboa izan da. Hezkuntza-ikerkuntzaren paradigmei dagokienez, paradigma interpretatzailea jarraitu dut, izan ere, ikertzaile eta profesional desberdinen interpretazioak aztertuz jardun dut, baita legeen interpretazio propioa eginez ere, helburua errealitate konkretu bat ezagutu eta ulertzea izanik: adopzioaren errealitatea Gipuzkoan.

Lanaren egitura mistoa da. Batetik, metodo historikoa baliatu dut Gipuzkoako babes sistemaren azterketa historikoa egiteko. Metodo historikoa jarraitzeak ikerketan zenbait fase jarraitzea eskatzen du, ezinbestekoak direnak historia eraikitzeko. Fase horiek heuristika, kritika, hermeneutika eta azalpena dira¹ (Ruiz-Berrio, 1976). Bestetik, legeen azterketa egin dut, azken 20 urteetako adingabeen babesari buruzko legeak aztertu eta interpretatuz.

Baliatutako iturriei dagokienez, asko izan dira erabilitako lanak. Ikerketa egiterakoan nagusiki bigarren mailako iturriak baliatu ditut. Aspektu historikoa garatzeko erabilitako dokumentu garrantzitsuenak hurrengoak izan dira: Arantxa Uribe-Etxebarria *et al.*-en *Una visión histórica y comparativa actual sobre los sistemas de atención a la infancia desprotegida en la Comunidad Autónoma del País Vasco*; Eva Garcíaen *Mujeres de barro, infancias de cristal: Fraisoro, 1903-1985*; eta Paulí Dávilaren *El largo camino de los derechos del niño: entre la exclusión y la protección*.

Adopzioaren gaur egungo errealitatea aztertzeke aldiz, erabilitako lan garrantzitsuenak Beatriz San Románen *Fundamentos y prácticas de la adopción contemporánea* eta Rosa Varela, Alba Méndez eta Sheila Carvajalen *Acogimiento y adopciones desde la teoría sistémica. Planificación en trabajo social* izan dira.

Lehen mailako iturriak ere erabili ditut ikerketarako. Alde batetik, azken bi hamarkadetan indarrean jarritako lege desberdinak aztertu ditut, adingabeen babesari dagozkienak. Horrez gain, Gipuzkoako adopzio datuak eskuratzeko Gipuzkoako Foru Aldundiaren memoria desberdinak baliatu ditut. Azkenik, eztabaidaren atala hornitzeko elkarrizketak egin dizkiet Gipuzkoan adopzioaren arloan lan egiten duten profesional desberdinei: Itxaso Martín, Gipuzkoako Foru Aldundiko harrera eta adopzio arloko gizarte langilea; Kontxi Alicostes, Lotuneko (Gipuzkoan adopzioa sustatzeko programa)

¹ Heuristika dokumentuen bilaketaz eta sailkapenez arduratzen da. Kritikak dokumentuen edukia ulertzeari eta zuzen interpretatzeari egiten dio erreferentzia. Datuen interpretazio historikoak hermeneutika osatzen du.

psikologoa eta koordinatzailea; Amaia Berdonces, Lotuneko psikologoa; eta Oihana Lizarralde, Gipuzkoako Ume Alaia adopzio-familien elkarteko gizarte langilea.

Helburua ikerketa zorrotz bat burutzea izan da, ahalik eta sakonena, jakitun izanik Gradu Amaierako Lan batek dituen mugak horrelako gai konplexu bat sakontasunez lantzeko. Hori horrela, ikerketaren hasiera izan daiteke honakoa, oinarrizko azterketa bat egiten duena, baina inolaz ere osatua.

3. MARKO TEORIKOA

3.1. BABES SISTEMA GIPUZKOAN: HURBILPEN HISTORIKOA

Gaur egun ezagutzen dugun adingabeen babes sistemaren aurrekariak Elizaren karitatezko jardunean eta benefizentzian topatzen ditugu. Espainiako lehen umezurztegia 1410 urtean sortu zen, Valentzian (Esteban, 2013). Euskal Herrian aldiz, XVI. mendearen amaieran ireki zen lehen inklusa, Iruñean (Alustiza, d.g.-a).

Antzinako Erregimenean haur ez-legitimoen kopurua handia zen Gipuzkoan, baina abandonatutako haurren kopurua ez zen altua, izan ere, naturaltasunez onartzen zituzten haur horiek familietan. Aldaketa sozio-ekonomikoek, elizaren eraginak, moral burgesaren orokortzeak eta familia-ereduaren aldaketak errealitate hura aldatu zuten, ezkontzaz kanpo jaiotako haurren abandonua normalizatuz (Martínez, 1996). Hori horrela, XIX. mendean nabarmen handitu zen abandonatutako haurren kopurua.

Lola Valverderen arabera (1994), Gipuzkoako haur abandonatuak Iruñeko inklusara bidaltzen zituzten, 1805ean probintziak bere gain hartu zituen arte. Urte hartan 5 tornu ezarri ziren Gipuzkoako Miserikordia etxeetan: Donostian, Tolosan, Azpeitian, Azkoitian eta Arrasaten; haurrak bertan abandonatzen zituztelarik. Haurra tornuan uzterakoan, eta bertatik kendu arte, txirrin batek jotzen zuen. Modu horretan, tornuaz arduratzen ziren emakumeek lehen momentutik artatzen zituzten haurrak, amaren anonimotasuna mantenduz eta kalean abandonatzearen arriskuak murriztuz (García, 2021). Garai hartan, XIX. mendearen lehen hamarkadan, Gipuzkoan abandonatutako haurrak harreran hartzeko inudeak kontratatzen hasi ziren, izan ere, ez zegoen haur horientzako instituzio edota establezimendurik, 1903an Fraisoro ireki zen arte (Valverde, 1994).

XIX. mendearen erdialdetik aurrera legean hainbat aldaketa egin ziren, Estatuari ongintzako zein babes-instituzioen gaineko kontrolerako eta ikuskaritzarako eskumena esleituz. Hori horrela, gizarte laguntzaren arloaren sekularizazio prozesua eman zela esan daiteke (Dávila, 2008).

Prozesu horri jarraiki, XX. mendearen hasierako urteak oso garrantzitsuak izan ziren adingabeen babesari dagokionez, izan ere, lege asko onartu eta martxan jarri ziren (Uribe-Etxebarria, 1994). Espainiako adingabeen babes sistemaren arautzearen aitzindaritzat jotzen den Haurren Babeserako Legea 1904ko abuztuaren 12an onartu zen, Tolosa Latour Legea bezala ere ezagutzen dena. Lege horren xedea hamar urtetik beherakoei babes publikoa ematea zen. Aipatu bezala, abandonatutako haurrak eta

umezurtzak elikatzeko inudeak kontratatzen zituen Estatuak. Batez ere, jardun horren erregulazio eta kontrolerako balio izan zuen legeak. Gizartean baztertutako haurrekiko sortzen ari zen sentsibilitatearen isla izan zen, eta legearen ikuspuntutik aurrerapauso handi bat izan zen (Sánchez eta Guijarro, 2002).

1918ko azaroaren 25eko Lege Dekretuak Espainiako lehen Adingabeen Auzitegiak eratu zituen. Arau horrek, lehen aldiz, adingabe delitugileentzat jurisdikzio berezi bat sortu zuen, adingabeak helduentzat aurreikusitako marko penaletik kanpo utziz.

Haurrentzako Auzitegi horiek, gainera, izaera bikoitza zuten: erreformatzailea eta babeslea. Lehenengoari dagokionez, funtzio jurisdikzionalak betetzen zituzten, eta 15 urtetik beherakoek egindako delituen gaineko konpetentzia zuten. Bestalde, babes-ahalmenari dagokionez, guraso edo tutoreei haurren zaintza eta heziketarako eskubidea eteteko eskumena zuten, baldin eta delituak edo arau-haustekak burutzen bazituzten, edota adingabearen babesgabetasuna eragin zezakeen guraso-ahalaren jardun okerra bazuten. Kasu horietan, Tribunalak adingabea beren familiaren zaintzapean utzi, besteren familia, pertsona edo tutoretza entitate bati eman, edo denbora jakin batez egoitza batean sartzea erabakitzeko eskumena zuen (Boccio, 2015). Donostian 1922 urtean sortu zen Adingabeen Auzitegia (Dávila *et al.*, 1991).

Aipatu bezala, abandonatutako haurrentzako Gipuzkoako lehen instituzioa izan zen Fraisoroko sehaska etxea, 1903 urtean Zizurkilen irekia. 1994 urtera arte jardun zuen, eta 91 urte horietan 3500 emakume eta 12000 haur inguru igaro ziren bertatik. 1913an amatasun gela bat ezarri zen Fraisoron, bertako tornua ordezkatzuz (Alustiza, d.g.-b).

Eva García deskribatzen duenez (2021), haur abandonatuak sehaska etxean hartzeko bi bide desberdin zeuden. Alde batetik, tornuan edota atezaindegian utzita; bestetik, Fraisoron jaiotakoak edo beste amatasun etxeetan jaiotakoak izan zitezkeen, emakume gipuzkoarren seme-alabak baldin baziren, betiere. 1924 urtean haurrak atezaindegian abandonatzen zituztenei jaiotza-agiria edota bataio-agiria helarazteko eskatzen hasi zitzairen, ama ezaguna zen kasuetan. Dokumentuak haurraren espedientean gordetzen ziren. Horrek, urte batzuk beranduago, jatorri-bilaketarako aukera zabaldu zuen.

Haur abandonatuen edoskitzerako ezinbestekoak izan ziren inudeak, kanpokoak edo Fraisoron bizi zirenak izan zitezkeenak. Kanpoko inudeei dagokienez, ezkonduko emakumeak ziren, seme-alabaren bat izan ondoren beste haur bat edoskitzeko behar adina esne zutenak, edota euren haurren heriotza goiztiarra jasan zuten amak. Harreran hartutako haurrak 6 urte betetzen zituen arte edoskitzen zituzten, diru kantitate baten

truke. Haurra adin horretara heltzean familiek haurrarekin gelditzeko eta *prohijazioa* egiteko aukera zuten, edo kontrara, instituziora itzultzekoa. Aipatzekoa da kanpoko inudeen familia gehienak txiroak zirela. Zenbait familiek inudeen soldata jasotzeko helburuarekin soilik edoskitzen zituzten haurrak, eta ez zuten haurrak Fraisorora bueltan itzultzeko inongo arazorik. Beste zenbaitek ordea, doako lan-indar soil gisa mantentzen zituzten euren ardurapean. Urte horietan asko izan ziren salatutako tratu txarren kasuak (García, 2021). 1949an, formula-esnearen eraginkortasunaren ondorioz, abandonatutako jaioberrientzako familiak hautatzeko irizpideak aldatu ziren, ondorengorik gabeko eta etorkizunean adoptatzeko asmoa zuten familiak lehenetsiz, inudeen orde.

1. Irudia.

Inudeek haurrak zaintzeagatik jaso beharreko ordainsariak.

Art. 61. Las retribuciones se pagarán a las nodrizas con relación a la edad de los expósitos que tengan a su cuidado, en la forma siguiente:			
1. ^a	1. ^{er} año.....	25 pesetas	al mes.
	2. ^o id.....	25 id.	id.
	3. ^{er} id.....	15 id.	id.
	4. ^o id.....	15 id.	id.
	5. ^o id.....	15 id.	id.
	6. ^o id.....	10 id.	id.

Iturria: Reglamento General de Expósitos para la Provincia de Guipúzcoa de 1916 (19. or.)²

Barne-inudeei dagokienez, sehaska etxean erditutako amak izan zitezkeen, edota erditu ondoren Fraisorora iritsitakoak, anonimotasunaren truke euren seme-alabak bi hilabetez edoskitzeko betebeharra zutenak. Beste haurrak edoskitzeko aukera ere bazuten, ordainsari baten truke. Barne-inude gisa aritzeko ezinbesteko baldintza batzuk bete behar zituzten, hala nola: lehenerdia izatea, gipuzkoarra izatea edo instituzioan 3 urtez egon izana, eta baliabide faltan egotea. Urte batez sehaska etxean lanean egon ondoren, inudeek lan bila eta euren haurrarekin bizitzeko inguru egonkor baten bila irteteko aukera zuten, aurkitu bitartean haurra Fraisoron gelditzen zelarik. Emakume asko izan ziren helburu horrekin irten zirenak, baina gero haurraren bila itzuli ez zirenak, nahi ez zutelako edota beraien seme-alaben kargu egiteko gaitasunik ez zutelako. Haur horiek noraezean gelditzen ziren, izan ere, ez zuten beste familia batera eramateko baimenik, ezta amaren berririk ere. Beste kasu batzuetan, emakumeak ez ziren instituzioa uzteko gai sentitzen, eta bertan jarraitzen zuten. Hala ere, haurrak 5 urte


² *Reglamento General de Expósitos para la Provincia de Guipúzcoa* (1916). Imprenta de la Provincia. <https://w390w.gipuzkoa.net/WAS/CORP/DBKVisorBibliotecaWEB/visor.do?ver&amicus=166197>

betetzean arazo batekin egiten zuten topo: Fraisoroko haurren baimendutako gehienezko adina 5 urtekoa zen, beraz, haurrek bost urte bete ondoren ezin zuten bertan bizitzen jarraitu (Kutxa Fundazioa, 2021).

2. irudian ikus daitekeen bezala, XX. mendeko lehen hiru hamarkadetan zehar gorakorra izan zen Fraisoroko haur kopurua, 1923. urtean jo zuelarik goia, 333 haur bizi izan baitziren bertan urte hartan. Hurrengo urteetan aldiz, joera beherakorra nabarmendu zen modu progresiboan, nahiz eta gora-behera batzuk ere egon ziren, 60. hamarkadakoa kasu. Azken datuak 1987koak dira, urte hartan zehar 76 haur bizi izan ziren Fraisoron. 1940 eta 1990 urteen artean Fraisoroko haurren erdiak (%50,36) euren amekin itzuli ziren, eta soilik %32,43a izan zen legalki adoptatua (García, 2021).

2. Irudia

Fraisoroko haur kopurua 1903-1987.



Iturria: Norberak egina. García, E., 2021, 149-151 or.³

Bigarren Mundu Gerraren ondoren, nazioarteko komunitatea adingabeen eta haurren babesgabetasunaren gaineko kontzientzia garatuz joan zen, eta kezka horren isla izan ziren 1959ko Haurren Eskubideen Aldarrikapena eta 1989ko Haurren Eskubideei buruzko Nazio Batuen Hitzarmena. Prozesu zikliko bat izan zen: haurren babeserako politika nazionalak nazioartekotu egin ziren nazioarteko itunen bitartez, eta nazioarteko itun horiek beste herrialde batzuetako politika nazionalak bultzatu zituzten (Dávila,

³ García, E. (2021). *Mujeres de barro, infancias de cristal: Fraisoro, 1903-1985*. Manuel Larramendi Kultur Bazkuna.

2008). Paradigma aldaketa bat eman zen, haurra eskubideen objektu gisa ulertzetik eskubideak dituen subjektu aktibo izatera igaroz (Uribe-Etxebarria *et al.*, 2009).

Testuinguru horretan, 70. Hamarkadatik aurrera aldaketa ugari eman ziren adingabeen babes sisteman. Makroinstituzioak desegiteko prozesua hasi zen, egoitza txikiagoei eta arreta pertsonalizatuagoari bide emanez. Zerbitzuen dibertsifikazioa ere pixkanaka garatuz joan zen Espainiako lurralde desberdinetan (Rodríguez, 2016).

1985. urtean adingabeen babes sistema publikoa Foru Aldundien konpetentzia izatera pasa zen, instituzionalizaturiko haurrak Aldundien tutoretzapera igaroz. EAEn, lehengo baliabide-saretik abiatuta, zerbitzuak berrantolatuz eta jarduketa berriak txertatuz joan ziren pixkanaka Aldundiak. Gipuzkoako makroinstituzioen itxiera ez zen berehalakoa izan. Hala ere, Gipuzkoako Foru Aldundiak hasieratik egin zuen zerbitzuen dibertsifikazioaren aldeko apustua (Uribe-Etxebarria *et al.*, 2009). Testuinguru horretan itxi zituen ateak Fraisoroko Sehaska Etxeak, 1994an.

3.2. ADINGABEEN BABES SISTEMA GAUR EGUN

Nazioarteko legediak, alde batetik, Haurren Eskubideen Aldarrikapena ezartzen du, 1959ko azaroaren 20koa, Nazio Batuen Erakundearena. Dokumentuak 10 printzipio edo eskubide ezartzen ditu: berdintasunerako eskubidea, arraza, erlijioa edo nazionalitatea kontuan hartu gabe; bere garapen fisiko, mental zein sozialerako babes berezia jasotzeko eskubidea; izen bat eta nazionalitate bat izateko eskubidea; elikadura, etxebizitza eta osasun-arreta egokia izateko eskubidea; urritu fisiko edo psikikoek hezkuntza eta arreta bereziak jasotzeko eskubidea; familiak eta gizarteak maitatua eta ulertua izateko eskubidea; doako hezkuntza baterako eskubidea eta ongi pasatzeko eta jolasteko eskubidea; arrisku-egoeratan arreta eta laguntza jasotzen lehenak izateko eskubidea; abandonatua eta lanean esplotatua ez izateko eskubidea; eta, azkenik, munduko pertsona guztien arteko elkartasuna, adiskidetasuna eta justizia sustatzen duen hezkuntza jasotzeko eskubidea.

Bestalde, Haurren Eskubideei buruzko Nazio Batuen Hitzarmena dago, 1989ko azaroaren 20an Nazio Batuen Batzar Nagusiak sinatu zuena, eta 1990eko azaroaren 30ean Estatu Espainiarrak berretsitakoa. Hitzarmenak bi helburu nagusi ditu: batetik, adingabeen eskubideak zehaztu eta definitzea; bestetik, estatu sinatzaileei horretarako beharrezkoak diren neurriak hartzeko betebeharra ezartzea. Era berean, hiru arau-

printzipio ezartzen ditu: diskriminazio ezaren printzipioa, subsidiariotasunaren printzipioa eta haurren interes gorenaren printzipioa.

Paulí Dávilak (2008) oinarrizko lau kategoriatan sailkatzen ditu hitzarmenean zehazten diren haurren eskubideak: haurtzaroaren oinarrizko beharrak asetzea; eskubide zibil eta politikoak bermatzea; familiarekin elkarlana, beren eskubide eta betebeharrak errespetatuz; eta, azkenik, haurrak egoera zaugarrien aurrean eta esplotazio zein indarkeria forma ororen aurrean babestu eta artatzea.

3.2.1. Adingabeen babesa Espainiako legedian

Espainiako Kode Zibilak ezartzen du adingabeek eskubidea dutela Estatuaren eta, oro har, gizartearen aldetik babes berezia jasotzeko. Babeserako eskubide hori adingabearen bizitzaren alderdi guztietara hedatzen da: osasuna, hezkuntza, garapen emozionala eta segurtasun fisiko zein emozionala. Gainera, gurasoek seme-alaba adingabeak babestu eta zaintzeko erantzukizuna dutela ezartzen du, bai eta haien garapen osoa bermatzekoa ere. Gurasoek ezin dutenean osasun arrazoiengatik, istripuengatik edota abandonuagatik, Estatuak esku-hartzeko erantzukizuna du, adingabearen babesa bermatzeko. Horrez gain, pertsona guztiek adingabeen arrisku eta babesgabetasun egoerak salatzekeo betebeharra dutela ezartzen du, eta Estatuaren erantzukizuna dela kasu horietan adingabeen eskubideen babesa bermatzea.

21/1987 Legeak, azaroaren 11koak, Kode Zibilaren zenbait artikulua aldatzen ditu adopzioari, familia harrerari eta beste babes neurri batzuei dagokienez. Abandonuaren kontzeptua desanparoagatik ordezkatu zuen, adingabeen babeserako prozedurak arinduz. Era berean, familia harrera adingabeen babeserako instituzio gisa eratu zen, eta adingabearen interes goren orokortu zen administrazio zein arlo judizialeko jardun guztien printzipio gisa (Boccio, 2015).

Espainiako adingabeen babesa erregulatzen duen beste lege garrantzitsu bat da 1/1996 Lege Organikoa, urtarrilaren 15ekoa, Adingabeen Babes Juridikoari buruzkoa. Adingabeen babeserako mekanismoak zabaldu eta zehaztu zituen, eta haurren behar eta eskubideen definizio berri bat planteatu zuen. Halaber, botere publikoen betebeharrak ere ezarri zituen (Rodríguez, 2016).

5/2000 Lege Organikoa, urtarrilaren 12koak, adingabeen erantzukizun penala arautzen du, eta administrazio autonomikoei ematen die adingabe arau-hausleei ezarritako neurriak exekutatzeko kompetentzia (Uribe-Etxebarria *et al.*, 2009).

Urte batzuk geroago, 2015ean, Haurren Babes Sistemaren aldaketak ekarriko zituzten 8/2015 Lege Organikoa, uztailaren 22koa, eta 26/2015 Legea, uztailaren 28koa, onartu ziren. Lehenengoari dagokionez, aldaketa garrantzitsuenak haurren interes gorenaren printzipioaren mugaketa kontzeptuala, haurra entzuna izateko eskubidearen ezarpena (adinaren eta heldutasunaren arabera) eta portaera-arazoak dituzten adingabeentzako babes-zentro espezifikotara sarrera dira. 26/2015 Legeari dagokionez, batetik, arreta berezia jartzen du administrazio desberdinen arteko koordinazioa posible egiteko beharrezko mekanismoak martxan jartzean (Sánchez, 2017). Bestetik, Espainiako legedian lehen aldiz adopzio irekia erregulatzen da, adopzio mota gisa.

8/2021 Lege Organikoa, ekainaren 4koa, indarkeriaren aurrean haur eta nerabeen babes integralari buruzkoa da Espainiar estatuan adingabeen babes sistema arautzen duen lege berriena. Batez ere prebentziora orientaturiko legea da, eta helburu nagusiak detekzio goiztiarra eta protokoloen sorrera dira, haurtzaroarentzat ingurune seguruak, tratu onekoak eta inklusiboak sortzeko. Haurrenganako indarkeria motak zerrendatu eta definitzen ditu legeak, babesgabetasuna indarkeria mota gisa definituz.

Legeak autonomia-erkidego guztietan du eragina. Jarraian nire ikerketaren jarraipena egiteko Euskal Autonomia Erkidegoko legediaren azterketan sakonduko dut.

3.2.2. Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) legedia

Autonomia Estatutuaren 10. artikulua (1978) eskumenak ematen dizkio Eusko Jaurlaritzari asistentzia sozialaren, adingabeen tutoretzaren eta abarren arloan. 27/1983 Legeak Foru Aldundiei esleitzen die eskumena asistentzia sozialaren eta haur eta nerabeen politiken arloetan.

2005 urtean Eusko Legebiltzarrak 3/2005 Legea (LIA) onartu zuen, otsailaren 18koa, haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko. Horrela, gaiaren inguruko erreferentziazko marko orokor bat ezarri zen lehen aldiz EAEn. Testu horrek nazioartean, estatuan zein erkidegoan beste arau-tresna batzuek adingabeei aitorturiko eskubideak bildu zituen. Bestalde, eta bereziki, EAEn bizi edo aurkitzen diren adingabeei buruzko administrazio-jarduna arautzen duten printzipioak ezarri zituen, batez ere haur eta nerabeen babesari dagokionean (Eusko Jaurlaritza, 2022).

Abenduaren 5eko 12/2008 Legearen bidez, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa, haurtzaroaren arretarako politikan udal-eskumena txertatu zen. Gizarte Zerbitzuen jardueretan prozedurak ezartzeko exigentzia egin zen, lehen mailako arretan zein

bigarren mailakoan. Azkenik, lege honek baloraziorako eta diagnosirako tresnak modu orokortuan erabiltzeko beharra azpimarratzen du.

Adingabeen adopzioaren arloan Foru Aldundiek jarraitu beharreko jardueraprozedura arautzen du 114/2008 Dekretuak, ekainaren 17koak. Dokumentuak arautzen dituen aspektu garrantzitsuenak hurrengoak dira: premia bereziak dituzten adingabeen nolakotasuna, adoptatuen eskubideak (adibidez, anai-arrebekiko harreman pertsonalak mantentzekoa), adoptatzaileen egokitasunerako baldintzak eta prozedura, Foru Aldundien tutoretzapeko adingabeak adoptatzeko prozeduraren oinarritzko araudia adingabeen interes gorena ardatz izanik, nazioarteko adopzioaren berezitasunak, eta adopzioen erregistroa. Dekretuak behar bereziak dituzten adingabetzat hartzen ditu anai-arreben taldeak, ezgaitasunak eta osasun-arazo bereziak dituzten adingabeak, 7 urtetik gorako haurrak, arrisku-aurrekari kliniko hereditarioak dituzten adingabeak, edota beste premia berezi batzuk dituztenak.

Urte berean onartu zen 131/2008 Dekretua, uztailaren 8koa, gizarte babesik gabeko haur eta nerabeentzako egoitza harrerako baliabideak arautzen dituena. Alde batetik, EAEn “egoitza-egituren aniztasuna eta esku-hartzeen aniztasuna argitzeko behar diren jarraibideak eta irizpideak ematen” ditu; bestetik, “baldintza materialei eta funtzionalei nahiz langileen baldintzei buruzko arauetan haurren eta nerabeen eskubideak bermatzeko nahiz profesionalei esku-hartze esparrua (oso berariazko premiarik ez duten haurrak eta nerabeak zaintzeko eta portaera-arazo larriak dituzten adingabeak zaintzeko esparrua) emateko elementuak sartzen” ditu, eta, halaber, “laguntza hori emateko behar diren jardun-tresnak aurreikusten” ditu.

Estatu mailan aitzindaria izan zen 230/2011 Dekretua, azaroaren 8koa, BALORA-Euskal Autonomia Erkidegoan haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko udaleko eta lurraldeko gizarte-zerbitzuetan arrisku-egoeren larritasuna balioesteko tresna onesten duena, eta 152/2017 Dekretuaren bidez eguneratua. Dekretu horrek esku-hartze prozedura ezartzen du arrisku eta desanparo egoeretan, larritasun mailak definitzen ditu (zaurgarritasuna, arrisku arina, moderatua edo larria, eta desanparoa), arrisku eta desanparo egoeren larritasuna baloratzeko irizpideak eta prozedura ezartzen ditu, eta babesgabetasun motak zehazten ditu.

Amaitzeko, 179/2018 Dekretua dago, abenduaren 11koa, Euskal Autonomia Erkidegoan familia harrera arautzen duena. Bertan biltzen dira familia harreraren modalitateak, prozedura eta faseak; harreragileen egokitasunerako eskakizunak zein egokitasuna baloratzeko irizpideak; adingabearen egoeraren jarraipenari dagozkion


xedapenak; harrerapeko adingabeen eta harreragileen eskubideak eta betebeharrak, bai eta adingabearen guraso edo tutoreenak ere; neurria eteteko edo bertan behera uzteko zirkunstantziak; jatorrizko familiarekiko bisiten, harremanen edo komunikazioen araubidea; eta harreragileei laguntzeko neurriak, zerbitzuak eta programak.

3.3. BABES SISTEMAREN EGITURA GIPUZKOAN

EAEko lurralde desberdinetan babes sistemaren antolaketa eredu orokorra berdina da, eta 152/2017 Dekretuak arautzen du. Hurrengo irudian ikus daiteke EAEko arrisku- eta desanparo-egoeretan esku hartzeko prozedura (152/2017 Dekretua):

3. Irudia.

Babesgabetasun egoeretan esku-hartzeko prozedura EAEn.



Iturria: 152/2017 Dekretua, maiatzaren 9koa, 11. or.⁴

Arrisku- eta desanparo-egoeretan esku hartzeko prozedura egoera horretan egon daitezkeen haur edo nerabeei buruzko jakinarazpenen bitartez jartzen da martxan. Jakinarazpen hau partikularrek edo zerbitzuek egin dezakete (ikastetxeak, osasun-zentroak, poliziak, epaitegiak...), eta ohikoena Udaletako Gizarte Zerbitzuek (aurrerantzean UGZ) jasotzea da. Hala ere, kasu batzuetan Lurralde-mailako Gizarte

⁴ Euskal Autonomia Erkidegoan haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko udal- eta lurralde-mailako gizarte-zerbitzuetan arrisku- eta desanparo-egoeren larritasuna balioesteko Balora tresnaren eguneraketa onesten duena.

Zerbitzuek (LGZ) jasotzen dute jakinarazpena, hala nola haur jaioberrien abandonuen kasuan, adin txikiko atzerritar ez-lagunduak (IKEDAAk), ospitaleetatik bideratutako kasu larriak, etab.

Hurrengo urratsa kasuaren lehen balorazioa egitea da. Bertan arrisku- edo desanparo-egoerarik ez dagoela baloratzen bada, espedientea itxi eta, beharrezkoa balitz, beste zerbitzu batzuetara bideratzen da kasua, eta UGZtik jarraipena egin. Aldiz, arriskuren bat egon daitekeela baloratzen bada, ikerketa sakonago bati ekiten zaio. Arrisku-egoera egoteko aukerak daudenean, baina larrialdiko kasua ez denean, ikerketa oinarritzko zerbitzuetatik egiten da (UGZ). Arrisku-egoera larria egon badaiteke, eta larrialdiko kasua izateko aukerak badaude, kasua hartu duen zerbitzuak egiten du ikerketa. Azkenik, desanparo-egoera bat dagoela baloratzen bada, eta larrialdiko esku-hartzea egin behar bada, zerbitzu espezializatuen (LGZ) ardura izango da ikerketan sakontzea, esku-hartzeko informazio gehiago beharrezkoa dela baloratzen den kasuetan.

Ikerketaren emaitzek egoeraren larritasun-maila zehaztea ahalbidetuko dute. Arrisku- edo desanparo-egoerarik ez dagoenean, prozedurari baja eman eta espedientea ixten da. Arriskurik egiaztatzeko aukerarik egon ez arren, susmoak badaude, UGZen jarraipena egiten da, egoera argiagoa denean eta beharrezkoa balitz esku-hartzeko. Arriskua arina edo ertaina den kasuetan aldiz, esku-hartzea aktibatzen da Udaleko Gizarte Zerbitzuetatik. Desanparo edo arrisku larriko kasuetan Lurraldeko Gizarte Zerbitzuen esku-hartzea abian jartzen da. Desanparo-egoeretan, dagokion legezko jardun-prozedura jartzen da martxan (arrunta edo larrialdikoa).

Gipuzkoako adingabeen babeserako erakunde publikoa Foru Aldundia da. Gizarte Politiketako Departamentuaren barruan kokatzen da Haur eta Nerabeen Babeserako Zerbitzua, eta hiru atal ditu. Haurren Babeseko Sarrera atalak familiako eta gizarte eta hezkuntza-arloko esku-hartze zerbitzua kudeatzen du, baita haurtzarora eta nerabezarora babesteko zerbitzura zuzendutako laguntza ekonomikoak ere. Bigarren atala Egoitza Harrerakoa da, zeinak babesgabetasun-egoeran dauden adingabeentzako harrera zerbitzuaren gaineko ardura duen. Azkenik, Familia Harrera eta Adopzioko atala dago. Azken honek babesgabetasun-egoeran dauden adingabeentzako familia harrera zerbitzua eta adopzioaren sustapenerako eta laguntza teknikorako zerbitzua eskaintzen ditu.

Programa eta zerbitzuei dagokienez, hurrengoak dira: haurren eta nerabeen babesa, gizarte eta hezkuntza arloan eta arlo psikosozialean esku hartzeko zerbitzua, adingabe

atzerritarren aldi baterako lekualdaketa programak, egoitza harrera, familia harrera eta adopzioa. Zerbitzu horien baitan beste hainbat programa kudeatzen ditu Gipuzkoako Foru Aldundiak.

Egoitza harrerari dagokionean, 131/2008 Dekretuak programen tipologia arautzen ditu, eta Gipuzkoako Egoitza Harrerako Sarea dekretu horren arabera egituratzen da. Horrela, 4 egoitza baliabide mota bereizten dira: larrialdiko harrera-programa, oinarrizko programa orokorra, jokabide-arazoak dituzten nerabeei arreta emateko programa espezializatua, eta jokabide-arazo larriak dituzten nerabeei laguntza intentsiboa emateko programa espezializatua.

Familia harreraren barruan ere hainbat modalitate bereizten dira. Iraupenari eta helburuei erreparatuz, hiru mota daude: batetik, larrialdiko familia harrera, adingabeari dagokion babes-neurria ebazten den bitartean egiten dena, eta gehenez ere 6 hilabeteko iraupena izan dezakeena; bestetik, aldi baterako familia harrera, behin-behinekoa dena, eta gehenez ere 2 urteko iraupena izango duena, adingabearen interes gorenak luzatzea eskatzen ez badu; eta azkenik, familia harrera iraunkorra.

Adingabeak pertsona edo familia harreragileekin duen lotura eta haien ezaugarriak kontuan hartuz aldiz, bi motatakoa izan daiteke harrera: adingabearen familia zabalean, harreragileen eta adingabearen arteko ahaidetasun-lotura dagoen kasuetan; eta besteren familian, ahaidetasun-loturarik ez dagoenean.

Era berean, besteren familiako harrera espezializatua eta profesionalizatua izan daiteke. Harrera espezializatuan hartuko diren adingabeak behar bereziak dituztenak izango dira. Familia harrera espezializatua eratzeko beharrezkoa da gutxienez harreragileetako batek behar bereziak dituzten adingabeei begira eginkizun hori betetzeko gaitasun, esperientzia eta prestakuntza espezifikokoak izatea. Familia harrera espezializatua profesionalizatua izango da espezializatua izateko aipaturiko baldintzak betetzeaz gain, harreragileak erakunde publikoarekin lan-harremana badu.

Adopzioari dagokionez, mota desberdinetakoa izan daiteke: nazioartekoa edo nazionala, eta itxia edo irekia.

3.3.1. Babesgabetasuna eta adingabeen interes gorena

XXI. mendearen hasieratik adingabeen babes sistemak joera berri bat hartu du, prebentzioari garrantzia handia emanaz. Aldaketa horren erakusle da 8/2021 Lege Organikoa, LOPIVI gisa ere ezagutzen dena. Abandonatutako haurtzaroaren kontzeptu zaharretik babesgabetasunaren kontzepturako aldaketa kualitatiboa egin da azken

urteetan, haurrak eta nerabeak egoera jakin batean (legalki “arrisku egoera” eta “desanparo” bezala izendatuak) aurkitzen diren subjektu gisa kokatzera, eta horren arabera jardutera (Uribe-Etxebarria *et al.*, 2009).

Samuel Maríren arabera (2016), egungo adingabeen babes sistema ardazten duten printzipioak hurrengoak dira: adingabearen interes gorena, adingabea jatorrizko familian mantentzea bere interesen aurkakoa ez bada, familia- eta gizarte-integrazioa, adingabearen garapen pertsonala kaltetu dezaketen egoera posibleen prebentzioa, adingabeen babesgabetasun egoeren gaineko sentsibilizazioa, parte-hartzearen eta elkartasun sozialaren sustapena, eta azkenik, objektibotasuna, inpartzialtasuna eta segurtasun juridikoa babes-jardunean.

Adingabeen babesgabetasuna kontzeptu aldakorra da, testuinguru soziokulturalaren arabera moldatzen eta eraberritzen dena. Haurtzaroarekiko tratu desagokizat hartzen diren zenbait egoera, duela hamarkada batzuk tratu egoki gisa ulertzen ziren.

Haurren eskubideei buruzko Nazio Batuen Hitzarmenean (1989) haurren aurkako tratu txarrak “edozein modutako kalte edo gehiegikeria fisiko nahiz mentalak, arduragabekeria edo tratu zabarra, tratu txarrak edo esplotazioa, sexu gehiegikeriak barne” bezala definitzen dira 19. artikuluan.

Munduko Osasun Erakundeak hurrengo dio (2022): “18 urtetik beherakoek jasaten dituzten abusuak eta arretarik eza. Horien barruan sartzen dira era guztietako tratu txar fisikoak edo psikologikoak, sexu-abusuak, arretarik eza, zabarkeria eta esplotazioa, haurraren osasunari, garapenari edo duintasunari kalte egiten diotenak edo eragin diezaioketenak, edo haren biziraupena arriskuan jar dezaketenak, erantzukizun-, konfiantza- edo botere-harreman baten testuinguruan”.

Definizio desberdinak dauden arren, oinarrian dagoen ideia berdina da: haurtzaroarekiko tratu txarrak, haurraren ongizaterako beharrezkoak diren oinarrizko premiak behar bezala asetzea edota haurraren garapen egokia eta osoa oztopatzen dituzten jarrera oro dira.

Adingabeen babes sistemaren printzipio nagusia adingabearen interes gorenarena da. Legedian etengabe errepikatzen den kontzeptua da, sistema guztia ardazten duena, eta erabaki guztiak printzipio horren arabera dira. Hala ere, legedia aztertuz gero, oso kontzeptu indefinitua dela ikus daiteke. 8/2015 Lege Organikoak adingabeen interes gorenaren interpretaziorako irizpide orokor batzuk ezartzen ditu, hala nola bizitzeko eta garapenerako eskubidea babestea, adingabearen oinarrizko premiak asetzea, eta bere nahiak eta sentimenduak aintzat hartzea. Hori horrela, interpretaziorako marjinak oso

handiak dira, eta epailearen esku geratzen da adingabearentzat egokiena dena erabakitzea.

3.3.2. Babesgabetasuna zenbakitan

Gipuzkoako Foru Aldundiak jasotako babesgabetasun jakinarazpenen kopurua 790ekoa izan zen 2022an. Datu horretan egoera desberdinetako haurrak agertzen dira: familia erreferentea duten adingabeak (367), familia erreferenterik gabeko adingabe migratzaileak (214), adingabe arau-hausleak (118) eta Ukrainako aldi baterako babesean dauden haur eta nerabeak (91). Bestalde, 2022ko abenduaren 31n 808 haur eta nerabek zuten banaketa neurria Gipuzkoan (Ararteko, 2023). Datu horrek ez ditu adoptaturiko haurrak barne hartzen, egoitza harreran eta familia harrerako modalitatearen batean daudenak baizik. Hau da, adoptatu bitartean larrialdiko familian dauden haurrak eta adopzio aurreko zaintzan daudenak agertzen dira, baina legalki adopzioa exekutatu denean, adingabe hori datu hauetatik kanpo gelditzen da.

4. Irudia.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Haur eta Nerabeak Babesteko Zerbitzuan jasotako haur eta nerabeen jakinarazpenen banaketa (ehunekoa), jatorriaren arabera.

	2020		2021		2022	
	Haur eta nerabeen kopurua	Kopuru osoaren gaineko %a	Haur eta nerabeen kopurua	Kopuru osoaren gaineko %a	Haur eta nerabeen kopurua	Kopuru osoaren gaineko %a
Familia erreferentea Gipuzkoan	269	% 57,1	331	% 51,5	367	% 46,5
Arau-hausleak	72	% 15,3	119	% 18,5	118	% 14,9
Familia erreferenterik gabeko migratzaileak	130	% 27,6	192	% 30	214	% 27,1
Ukrainako aldi baterako babesa					91	% 11,5
	471 (373 familia)	% 100	642 (461 familia)	% 100	790 (604 familia)	% 100

Iturria: Ararteko (2023)⁵

3.4. ADOPZIOA

Gipuzkoako Foru Aldundiaren arabera, adopzioa jatorrizko familian jarraitu ezin duten eta familia ingurune iraunkor baten beharra duten hurrei bideraturiko babes

⁵ Ararteko (2023). *Arrisku egoerak haurtzaroan eta nerabezaroan: erakunde bermatzaileen azterketa haurren eskubideen ikuspegitik*. <https://www.ararteko.eus/eu/arrisku-egoerak-haurtzaroan-eta-nerabezaroan-erakunde-bermatzaileen-azterketa-haurren-eskubideen-ikuspegitik>

neurri bat da. Behin betiko neurria da, atzera bota ezin dena, eta adingabearen eta familia biologikoaren arteko lege loturak eteten ditu.

Adopzio mota desberdinak daude. Alde batetik, nazioarteko adopzioa eta nazionala bereizten dira. Lehenengoaren kasuan, haurra beste herrialde batean adoptatzen da, eta nazionala dela esaten da espainiar estatuan adoptatzen denean. Adopzioa Autonomia Erkidegoen eskumena izanik, adopzio nazional gehienak adingabearen lurraldean bertan gauzatzen dira. Bestalde, adopzioa itxia edo irekia izan daiteke. Adopzio itxiak adingabearen eta jatorrizko familiaren arteko harreman oro eteten du. Adopzio irekiaren modalitateak ordea, adingabearen eta jatorrizko familiaren artean harremana mantentzea ahalbidetzen du, adopzio autoan ezartzen den komunikazio-bide eta maiztasunarekin.

3.4.1. Adopzioa babes neurri gisa

Adopzioa antzinatetik existitzen da, baina babes neurri gisa nahiko berria dela esan daiteke. Historian zehar adopzioaren helburu nagusia seme-alabarik gabeko familiek zahartzaroan haiek zaindu edota oinordekotza bermatuko zuen norbait izatea zen. Horren erakusle da Frantziako Kode Zibilak 1925 urtera arte adin nagusikoen adopzioa soilik baimentzea. Espainiar estatuan, adopzioaren kontzepzio aldaketa bultzatu zuten faktore nagusietako bat 21/1987 Legea izan zen, adopzioa jardun pribatua izatetik adingabeen babes sistemaren parte izatera pasa baitzuen (San Román, 2021).

Gómezen arabera (2014), babes neurri bat da adopzioa, jatorrizko seniderik ez duten edo haiekin bizi ezin diren adingabeei zuzendua, behin betiko familia-ingurune alternatibo bat eskaintzen diona. Ez da familientzako zerbitzu bat, adingabearentzako zerbitzu bat baizik (Varela *et al.*-ek aipatua, 2019, 17. or.).


Legearen arabera, adopzioak bi oinarrizko printzipioren baitan funtzionatu behar du: adingabearen interes gorena eta subsidiariorotasuna. Adopzioa haurraren ongizatea bermatzera bideratutako jarduera da, beste edozein interesen gainetik. Praktikan ordea, adopzioaren historiaren zati handi batean, printzipio hau bigarren planoan gelditu da. Subsidiariorotasunari dagokionez, hurrengoari egiten dio erreferentzia: haurra jatorrizko familian mantentzea ezinezkoa edo desegokia denean soilik proposatuko da adopzioa.

Aipatzekoa da Espainia jatorrizko herrialdea izan zela XX. mendearen lehen hamarkadetan, hau da, beste herrialde batzuetatik adoptatzen zituztela adingabeak Espainian (San Román, 2021). Hala ere, 90. hamarkadan nazioarteko adopzioaren gorakada nabarmen bat egon zen, hurrengo bi hamarkadetan zehar mantendu eta handituko zena, eta adopzio nazionalaren beherakadarekin lotura handia duena (Varela

et al., 2019). Familia adoptatzaile gehienek haur txiki eta osasuntsuak bilatzen zituzten, eta adopzio nazionalen haur gehienak zaharragoak, anai-arreba taldeak eta behar berezietakoak (fisiko zein psikikoak) ziren. Horrek, adoptatzaile asko nazioarteko adopzioaren aldeko hautua egitera bultzatu zituen (Montané, 1996, Martinek aipatua, 2020). XXI. mendearen hasierarako munduan nazioarteko adopzio gehien egiten zituzten herrialdeen artean bigarren posizioan kokatu zen Espainia, soilik AEBen atzetik (San Román, 2021).

5. Irudia.

Adopzio nazionalaren eta nazioartekoaren garapena EAEn (1991-2004).



Iturria: Agintzari (2016)⁶

2010 urtetik aurrera aldiz, nazioarteko adopzioaren beheranzko joera hasi zen, gaur egun arte mantentzen dena. Aldaketa horren arrazoia ez zen izan adoptatu nahi zuten pertsona edo familien gutxiagotzea, baizik eta jatorrizko herrialdeetan adoptagarriak ziren haur txiki eta osasuntsu kopuruaren jaitsiera, mundu guztian ugalkortasun-tasa murriztea, haurtzaroa babesteko politiken inplementazioa, eta jatorrizko herrialdeetan adopzio nazionala areagotu izana. Era berean, gero eta herrialde gehiagok sinatzen dute Hagako Hitzarmena, nazioarteko adopzioari buruzkoa, zeinak prozedurak ezartzen dituen nazioarteko adopzioak familia baten beharrean dauden adingabeen premiei erantzuten diela bermatzeko. Hitzarmenaren arabera, nazioarteko adopzioa azken aukera izango da, haurraren jatorrizko herrialdean adopzioa eratzeko aukera guztiak agortu direnean baliatuko dena (San Román, 2021).

⁶ Agintzari (2016). *La postadopción en la Comunidad Autónoma del País Vasco: Claves para un abordaje estratégico del fenómeno de la postadopción.* http://adoptia.org/wp-content/uploads/2016/01/ADOPTIA_POST_cas.pdf

Hori horrela, nazioarteko adopzioan itxaron-denborak geroz eta luzeagoak dira, eta gainera, datuen arabera, adopzio nazionalen gertatzen den bezala, adopzioa orientatutako haur gehienek behar bereziak dituzte. Postadopzioko datuek erakutsi dute, beste herrialde batean “osasuntsu” gisa adoptatu ziren haur askok, urteek aurrera egin ahala, sekuelak zituztela osasunean edo garapenean, hala nola fetuaren sindrome alkoholikoa (Europa ekialdean eta erdialdean batez ere) edota jatorrizko familian zein kalitate txarreko harrera-instituzioetan izandako bizipenek eragindako traumak. Kasu batzuetan ezaugarri horietako nazioarteko adopzioek porrot egin dute, familia adoptatzaileak ezin izan dielako haurraren premiei behar bezala erantzun. Horrek eragin negatiboa du familia guztiarengan, baina, batez ere, haurraren (Martin, 2020).

Nolanahi ere, nazioarteko adopzioaren arrisku bakarra ez da espektatiben eta errealtatearen arteko desoreka. Haurren trafikoaren arazoa presente dago oraindik, izan ere, milaka familiek bizi duten pobrezia egoerak haien haurrak abandonatzera eramaten dituzte, “bizi hobe” bat emateko asmoz, eta trukean diru apur bat eskuratuz. Jardun horretan aritzen diren erakunde ilegalek haurrak merkantzia gisa tratatzen dituzte, haien zein familien eskubideak urratuz. Zenbait familia adoptatzailek adingabeen salerosketara jotzen dute, adopzioarako bidea motzagoa izaten baita modu horretan.

Adopzioaren helburu eta premisa nagusia adingabeen interes gorena defendatzea da, baina haurren trafikoaren bitartez egiten bada, ez du printzipio hori errespetatzen, alderantziz baizik (González, 2015, Varela *et al.*-ek aipatua, 2019). Horregatik, ezinbestekoa da, alde batetik, adopzioa adingabeentzako babes neurri gisa ulertzea, eta ez guraso izan nahi duten helduek euren desira asetzeko modu bezala; eta bestetik, adopzio nazionala bultzatzea, familia baten beharrean dauden haurrak badaude eta (Martin, 2020).

3.4.2. Haur adoptatuen errealtatea

Haur adoptatu guztiek izan dituzte bizipenak familia adoptatzaileira iritsi aurretik, batzuetan hilabete batzuetakoa, eta beste batzuetan urteetakoa. Kasu guztietan, denbora horretan guztian bizitakoak eragina du adingabeengan. Familia biologikoaren galerak atsekabe handia eragiten du haurrengan, abandonu sentimenduak eraginez (Bourquin, 2007, Varela *et al.*-ek aipatua, 2019). Haur txikiaren kasuan ere, haien iragana oroitzeko gai ez diren arren, abandonu sentimendu hori nabaritzen dute (Varela *et al.*, 2019).

Adopzio aurreko bizitza haurren garapenean eragina duten bi esperientzia motarekin lotuta dago. Alde batetik, haur adoptatu askok tratu txarrak jasan dituzte (batez ere zabarkeria), eta horrek “garapenean eragin negatiboa duen oinarritzko harreman emozionalen distortsio bat eragiten du”. Bestetik, harrera egoitza batean denbora luzez egon diren haurrek, “ezin izan dute familia egoki batek eskaini dezakeen arreta eta zaintza jaso”. Bizipen horiek “haurren garapenerako arrisku-faktoreak dira” (Román eta Palacios, 2011).

Yolanda Sánchez-Sandoval eta Jesús Palacios-ek egindako ikerketa batean (2012) Andaluziako haur adoptatuen eta ez-adoptatuen arteko jokabide-arazoen eta arazo emozionalen azterketa bat egiten da. 7 eta 16 urte bitarteko 569 haurrek hartu zuten parte ikerketan, lau profil desberdinetan banatuta: adoptatuak, adoptatuen eskolako kideak, adoptatuen jatorritzko eremu geografikoan euren familia biologikoarekin bizi diren haurrak, eta egoitza-harrerakoak. Item desberdinen bidez haur horien arazo emozionalak, hiperaktibitate edota arreta arazoak, jokabide-arazoak eta jokabide prosozialean arazoak neurtu zituzten, eta adoptatuen emaitzak gainontzeko taldeen emaitzekin alderatu. Emaitzek erakusten dute adoptatuek euren gelakideek baina arazo gehiago adierazten dituztela. Jatorritzko eremuko haurrekin alderatuz aldiz, datuak oso antzekoak direla ikus daiteke. Egoitza-harreran dauden haurrak dira guztietan jokabide-arazo zein emozional gehien adierazten dituztenak.

Palaciosen arabera (2007), adoptatuek izaten dituzten zailtasun edo arazo ohikoenak hurrengoak dira:

Osasuna eta hazkuntza

Zenbaitetan, adoptatuek zenbait gaixotasun izan ditzakete, batez ere familia adoptatzaileira iritsi berritan, hurrengo egoera edo faktoreek eraginda: ondo zaindu gabeko eta medikuen jarraipenik gabeko haurdunaldiak, baldintza txarreko erditzea eta arreta perinatala, eta elikadurari, higienerari eta bizi-baldintzei lotutako arazoak, beste batzuen artean. Hazkuntza arazoei dagokienez, arrazoi berdinek azaltzen dituzte altuera, pisu eta buru-perimetroaren atzeratasunak, zeinak zenbait adingabe adoptatutan agertzen diren.

Garapen psikologikoa

Haur adoptatu askok garapen psikologikoaren atzerapena izan ohi dute. Familia berrira iristean narriadura larrienen kasuekin zein errekupeazio mugatueneen kasuekin lotzen diren faktoreak hurrengoak dira: luzaroan instituzionalizatua egon izana, adina

(gero eta zaharragoa, orduan eta arrisku handiagoa) eta tratu txarrak. Horrek guztiak hainbat esparrutan du eragina, hala nola hizkuntzaren garapenean edota jardun akademikoan.

Jarrera arazoak

Adoptatuen artean ohikoenak hiperaktibitatearekin eta arreta-arazoekin lotutakoak dira (inpulsibitatea, kontzentrazio-zailtasunak, besteekiko jarrera desatseginak...). Arazo horiek, ondo lantzen ez badira, denboran luzatu ohi dira, eskola-errendimenduan eta kideekiko harremanetan zailtasunak sortuz.

Atxikimendua

Familia adoptatzaileran iristean asko dira atxikimendu ez-ziurra eta desantolatua agertzen dituzten haurrak. Atxikimendu-arazoen forma desberdinak har ditzakete haur bakoitzarengan. Kasu batzuetan, pertsona batekin atxikimendu-harreman pribilegiatu baten falta izan dutenez, haurrak eroso agertzen dira ezagun zein ezezagunekin, guztiekiko atxikimendu bera adieraziz. Beste batzuetan aldiz, jarrera isolatzaileak hartu ohi dituzte. Atxikimendu desantolatuak, askotan, jokabide okerrak eta konplexuak izatera eramaten ditu haurrak.

Galerak eta jatorriekiko lotura

Jaioberritan adoptatuak izan ziren haurrek adopzioaren ikuspegi neutro edota positibo bat izan ohi dute eskolaurreko urteetan, garrantzirik gabeko auzi gisa eta naturaltasun osoz tratatzen dutelarik auzia. Adin horretan, familiaren inguruan duten kontzeptua batera bizi diren eta elkar maite duten pertsonen taldearena da. Baina, 6-7 urteren bueltan, familiako kideen arteko harreman biologikoaren kontzientzia hartzen dute, eta aurkikuntza horrek adopzioaren inplikazioak ulertzera daramatza: orain duten familiaren aurretik beste bat izan zuten, eta familia bat “irabazi” badute ere, beste bat “galdu” dute. Litekeena da horrek ezinegonak sortzea haurrengan, eta beraien bizitzaren historiaren eta jatorrien inguruko jakinmina eta kezka piztea.

Sentimendu horiek nerabezaroan berriz ere indartzen dira, gaitasun kognitibo berriekin eta identitatearen eraikuntzarekin loturan. Adin horretan iraganaren inguruko galderak eta zalantzak sortzen zaizkie, duda kognitiboek harago inplikazio emotiboak dituztenak.

Zentzu horretan, Andaluziako Haurren eta Nerabeen Behatokiaren arabera, babes neurri bat hartzen denean, adingabearen arazoen kausa urundu egiten da, baina haien

ondorioak ez dira hain erraz desagertzen. Tratu txarrak tarteko izanda ere, jatorrizko familiarekiko lotura emozionalak garatzen dira (Varela *et al.*, 2019).

Beharrezkoa da adoptatuen bizitzaren historia eraiki eta lantzea, hainbat arrazoi tarteko. Batetik, hurrek galera emozionalak, erreferentzia eta jarraikortasun falta, beren historian hutsuneak eta familia-egoera nahasiaren sentsazio eta sentimenduak izan ohi dituzte. Era berean, familientzako ere garrantzitsua da, hurrekin modu argian hitz egiteko eta komunikazioa errazteko aukera ematen baitu. Gainera, legeak hurren eskubide gisa jasotzen du jatorriekiko informazioa eskuratzea. Horrela, hurrek beren historia ezagutu eta egungo egoera ulertzera irits daitezke (Jiménez, 2017, Varela *et al.*-ek aipatua, 2019).

Haur adoptatuak familia berriaren parte izatera igarotzen direnean, guraso askok uste dute maitasunaren eta zaintzaren bitartez adingabeek aurretik izandako sufrimendu eta bizipenak gaindituko dituztela. Haatik, bizipen horiek guztiek lanketa sakona behar dute gaindituak izateko (López, 2017). Lan hori adoptatuekin zein adoptatzaileekin egin behar da, familia-unitate gisa, eta ez bada modu egokian egiten, adopzioaren porrota edota haustura eragin ditzake. Gainera, adopzioaren haustura abandonu bat da, lehendik abandonu bat bizi izan duten hurrek jasan behar dutena. Egoera horiek nabarmen zailtzen dituzte etorkizuneko esku-hartzeak, “haustura bakoitzak trauma bat eragiten duelako familian, eta bereziki adingabeengan” (Martin, 2020).

3.4.3. Adopzio irekia

26/2015 Legean adopzio irekia erregulatzen da Espainian lehen aldiz. Berrikuntza horrek jatorrizko familiaren, adoptatuaren eta familia adoptatzailearen arteko harremana edo kontaktua mantentzea ahalbidetzen du, beti ere adingabearen interes gorena kontuan hartuz egokiena dela baloratzen bada.

Espainiar estatuan adopzio-modalitate berria bada ere, zenbait herrialdetan hamarkadetako ibilbidea du jada. San Románen arabera (2021), Estatu Batuetan, Kanadan, Erresuma Batuan eta Zeelanda Berrian egiten diren adopzio nazional kasu gehienak irekiak dira graduren batean, adoptatuaren adina edozein dela ere. Adopzio irekiak ez dakar ezinbestean jatorrizko familiarekin harreman zuzena izaterik, kasu batzuetan argazkiak edota gutunak bidaltzen dizkiete elkarri, gizarte langileen bitartekaritaz, anonimotasuna mantenduz. Beste kasu batzuetan aldiz, bideodeiak edota bisitak egiten dira.

Aipaturiko herrialdeetako ikerketek erakutsi dute kontaktua mantentzeak ez duela kalterik eragiten haurren garapen psikosozialean. Alderantziz, hainbat onura ditu jatorrizko gurasoentzat, adoptatzaileentzat eta adingabe adoptatuentzat. Datuen arabera, prozesua konplexua eta gorabeheratsua izan daitekeen arren, akonpainamendu profesionalaren bitartez egin denetan, emaitza positiboak eman ditu kasu gehienetan (San Román, 2021).

Lópezek (2020) adopzio irekiaren abantailak eta arriskuak bildu zituen. Alde batetik, onuragarria izan daiteke adingabearen garapenean, izan ere, adoptatuaren eta jatorrizko familiaren arteko kontaktua mantentzeak egonkortasun emozional bat eskaintzen dio, hausturak ekidinez edo, gutxienez, hausturaren ondorio negatiboak gutxituz, hala nola abandonu sentimendua. Era berean, bere bizitzaren historiaren jakitun izanik, garapen psikosozial egoki bat izateko baldintzak hobekak izango dira. Hau da, adingabearen familia-errealitatea konplexua izan arren, egoeraren kontzientzia izango du uneoro, eta horren baitan garatuko da. Arrisku nabarmenena aldiz, familia adoptatzailearekin lotura eta pertenezia-sentimendua zaildu edota oztopatzea da.

Rosser eta Berásteguiaren arabera (2017), adopzio irekirako esku-hartze marko egokiena bitartekaritza da. Beharrezkoa da adopzioaren arloan kualifikatuta dauden eta familiekiko neutralak diren bitartekarien presentzia, prozesua ahalik eta aberasgarriena eta onuragarriena izan dadin guztientzat eta, bereziki, adingabeentzat.

3.5. AZKEN URTEETAKO ADOPZIOAREN BILAKAERA GIPUZKOAN

Azken urteetan adopzioen beherakada nabarmena eman da Gipuzkoan. Nazioarteko adopzioek 2009 urtean goia jo ondoren, urtez urte etengabe gutxiagotuz joan dira esleipenak.


Gipuzkoako Foru Aldundiaren arabera (2014), 2009 urtean Gipuzkoan guztira 85 adopzio eratu ziren; horietatik 76 nazioartekoak izan ziren, eta 9 nazionalak. 2010ean beherakada txiki bat izan zen, baina hurrengo urteetan nazioarteko adopzioek beherakada handia izan zuten: 2012an 39 izan ziren nazioartean adoptatutako haurrak, eta 2014an aldiz, 17. Adopzio nazionalak aldiz, kopuru antzekoetan mantendu ziren urte horietan.

2016 urtean lehen aldiz adopzio nazional gehiago egin ziren Gipuzkoan, nazioartekoak baino: 10 nazional eta 6 nazioarteko. 2019tik aurrera nazioarteko adopzioak minimoetan mantendu dira, eta adopzio nazionalak goranzko joera mantsoa

adierazten dute. 2021ean 6 adopzio nazional egin ziren, eta nazioarteko bakarra. 2022 urtean aldiz, nazioarteko adopzio bakarra egin zen Gipuzkoan, eta 11 nazional.

6. Irudia.

Adopzio nazionalaren eta nazioartekoaren garapena Gipuzkoan (2012-2022).



Iturria: Gipuzkoako Foru Aldundia (2023)⁷

4. ONDORIOAK

Nabarmenak dira mende batean zehar adingabeen babesak eta zehazki adopzioak jasandako aldaketak. XX. mendearen hasieran haurren abandonua ohiko jarduna zen, eta gaur egun pentsaezina zaigu haur bat kalean edota etxe baten atarian abandonatuta uztea, oraindik ere antzeko zenbait kasu ematen badira ere. Hala ere, horrek ez du esan nahi babesgabetasun egoeran aurkitzen den haurrik ez dagoenik, baizik eta adingabeen babesgabetasunak ere forma anitzak har ditzakeela, eta XXI. mende honetan abandonu zuzena ez den beste batzuk gailentzen direla, ezkutuagokoak direnak hain zuzen.

Aurretik aipatu bezala, Fraisoron haur gehien egon zen urtea 1923a izan zen, 333 adingaberekin. Gaur egun abandonatzen diren haurren daturik ez dagoen arren, Gipuzkoako Foru Aldundiak jasotako babesgabetasun jakinarazpen kopuruak balio dezake gaur egungo errealitatearen ideia bat egiteko. 2022an hain zuzen, 790 izan dira Aldundiak jasotako jakinarazpenak.

Ezinezkoa zaigu datu horien bitartez XX. mendeko haurren eta gaur egungoen babesgabetasun egoeren arteko konparaketa bat egitea. Ez da hori lan honen helburua, egoera ezagutzea baizik. Fraisoroko datuek abandonaturiko haurren eta bertako amatasun gelan jaiotakoen kopurua adierazten dute, baina ez dira inon biltzen gaur egun babesgabetasun egoera bezala kalifikatzen den egoeran bizi ziren haurrak. Hala ere,

⁷ Gipuzkoako Foru Aldundia (2023). *Gizarte politikak: 2022ko Memoria*. <https://www.gipuzkoa.eus/documents/1932270/e47ef684-cb92-7952-033f-acb41eac4cde>

haurren babesaren garapena atzeman daiteke datuak aztertuz gero. Alde batetik, XX. mendean zehar haur abandonatuen kopurua progresiboki murriztuz joan zela ikus daiteke, 20. hamarkadatik aurrera batez ere. Bestetik, gaur egun prebentziozko esku-hartzeak duen garrantzia atzeman dezakegu, babesgabetasun egoeran dauden adingabeen egoera aztertu, eta larritasunaren arabera esku-hartzea egiten baita, beharrezkoa denean banaketa neurria aplikatuz.

Era berean, gaur egungo babes sistemaren mugak agerian uzteko ere balio dezakete datu horiek. Izan ere, datuek argi erakusten dute asko direla Gipuzkoan babesgabetasun egoeran dauden adingabeak. Esku-hartze goiztiarrak zenbait muturreko kasu ekidin baditzake ere, prebentzio erreal eta eraginkor batek babesgabetasun arriskuko egoera bera ere ekidin beharko luke, babesgabetasun jakinarazpenen datuak nabarmen murriztuz. Hau da, prebentzioak babesgabetasunerako baldintzarik ez egotea bermatu beharko luke, eta horretarako beharrezkoa da babesgabetasuna eragiten duten faktore desberdinak identifikatzea, eta esku-hartzea aspektu horietara bideratzea.

Adopzioak ere aldaketa ugari jasan ditu azken hamarkadetan, gauzatutako adopzio kopuruari dagokionez, eta baita adoptatutako haurren jatorriari dagokionez ere. 90. hamarkadatik aurrera nazioarteko adopzioak gorakada handia izan zuen, 2000ko hamarkadan jo zuelarik goia. Gorakada hori adopzio nazionalaren beherakadaren eskutik etorri zen, nahiz eta ez zen proportzionala izan. Adopzio kopuruak orokorrean aztertuz gero, hau da, nazioartekoen eta nazionalen arteko bereizketarik egin gabe, XX. mendearen amaieran eta XXI.aren hasieran adopzioak ia seikoiztu egin ziren EAEn.

Hori horrela, nazioarteko adopzioak urte gutxian gorakada handia izan zuen, baina ez zen denboran zehar mantendu, beherakada ere ia bat-batekoa izan zelarik. Gaur egun Gipuzkoan nazioarteko adopzioa ia desagerturik dagoela esan dezakegu. Adopzio nazionalari dagokionean aldiz, azken hamarkadetan ez du gora-behera nabarmenik jasan, eta joera beherakor progresibo bat izan duela esan daiteke.

Adopzioaren bilakaerak lotura zuzena du adingabeen babesgabetasunarekin, baina baita adingabeen babesaren ulerkera eta garapenarekin ere. Izan ere, azken urteetako adopzioen jaitsiera orokorrak eta nazioarteko adopzioaren ia erabateko desagertzea hainbat faktore eragile ditu.

XX. mendearen amaierako nazioarteko adopzioaren gorakadaren arrazoi nagusietako bat adopzio nazionalen zeuden itxaron zerrenda luzeak ziren, izan ere, adopzioerako eskaintza egitetik haurraren adopzioa eratzera arte urteak igarotzen ziren. Guraso izateko berehalako nahia zela eta, haurrak beste herrialdeetan bilatzeari ekin

zioten askok. Horrez gain, adopzio nazionalera orientatutako haur gehienak behar berezietakoak ziren, eta adoptatzaile askok haur osasuntsu eta jaioberriak nahi zituzten. Bestalde, iritzi orokortua zen nazioartean adoptatzea herrialde azpigaratuetako haurrei laguntzeko modu bat zela, elkartasun eta eskuzabaltasun ariketa bat, bertako umezurtzei bizi hobe bat eskaintzen ari baitziren.

Hala ere, nazioarteko adopzioaren idealizazio horrek ez zuen luzaro iraun. Urteak igaro ahala agerian gelditu zen nazioartean adoptatutako haur askok osasunean edota garapen psikosozialean arazoak edo zailtasunak zituztela. Gainera, nazioarteko adopzioaren atzean ezkutatzen zen haurren trafikoa argitara atera zen, euren haurrak adopzioan ematera behartutako guraso askoren errealitatea mahaigaineratuz. Horrek guztiak eragin zuzena izan zuen praktika horren beherakadan.

Nolanahi ere, nazioarteko adopzioa gutxiagotzearen arrazoi nagusiak bestelakoak dira. Aurretik azaldu bezala, mundu osoko ugalkortasun tasaren jaitsiera, jatorrizko herrialdeetako adopzio nazionalen ugaritzea eta Hagako Hitzarmena zirela eta, geroz eta gutxiago ziren nazioarteko adopzioa orientatutako haur osasuntsu eta jaioberriak. Hori horrela, adopzioarako eskaintzen eta behararen arteko desorekaren ondorioz, itxaron denborak nabarmen luzatu ziren. Bien bitartean adopzioaren profesionalen artean abandonuaren ondorioen eta jatorri bilaketaren auziek pisua hartu zuten, kezka horiek guztiak eremu profesionaletik harago ere hedatu zirelarik.

Nazioarteko adopzioaren beherakadak alabaina ez zuen adopzio nazionalaren gorakada ekarri. Adopzioaren beherakada orokor batez hitz egin dezakegu, bi arrazoi nagusik bultzatua. Batetik, ugalkortasunaren jaitsiera orokorra dago, azken hamarkadetan nabarmendu dena. Haur gutxiago jaiotzeak desanparoa pairatzen duten haurren kopurua gutxiagotzea dakar ezinbestean.

Bestetik, eta batez ere, haurtzaroaren babeserako politiken inplementazioaren eragina islatu da adopzioan. Azpimarratzekoa da XX. mendean zehar nazioarteko legediak horretan guztian izandako garrantzia. 1924ko Haurren Eskubideen aldeko Genevako Adierazpenetik hasita, 1959ko Haurren Eskubideen Aldarrikapenetik zein 1989ko Haurren Eskubideei buruzko Nazio Batuen Hitzarmenetik igaro, eta 1993ko Hagako Itunera arte, asko izan ziren haurren eskubideen inguruan egindako aurrerapenak. Alde batetik, adingabeen babesari dagokion legedia internazional bat egoteak munduko herrialde desberdinetan babes sistema egituratzeko edota eraldatzeko balio izan zuen. Prozesu hori herrialde desberdinetan batera eta printzipio berdinen baitan egiteak sendotasuna ematen dio haurtzaroaren babesari. Bestetik, eragin zuzena

izan zuen gizarteak zuen haurren inguruko ulerkeran, eta ondorioz, baita haurren babesaren ulerkera orokorrean ere.

Horrek guztiak bide eman zion babesgabetasunaren prebentzioari eta detekzio goiztiarrari. Haurrak eskubidedun subjektu gisa hartu eta hauren eskubideak nazioartean adostearen ondorioz, eskubide horiek babesteko eta, orokorrean, haurtzaroa babesteko politikak bultzatu zituzten nazioarteko itun horiek.

Esan daiteke, beraz, nazioarteko legediaren ekarpena adingabeen babesean nabarmena izan dela; alde batetik, babes politika nazional eta lokalak garatzea ahalbidetu duelako, eta bestetik, gizartearen haurtzaroarekiko ulerkera aldatu duelako, geroz eta garrantzia gehiago ematen zaiolarik haurren heziketa eta zaintzari, haurtzaroaren babesaren eta eskubideen defentsaren printzipioak oinarri izanik.

Gaur egun adopzioa orientatutako haurren kopurua txikia dela esan daiteke. Izan ere, prebentzioa eta esku-hartze goiztiarra direla eta, kasu guztiak ez dira muturreko larritasun mailara iristen. Gainera, banaketa neurriek haurrengan dituzten ondorioak eta jatorriekiko loturen garrantzia kontuan izanik, adopzioa azken aukera bihurtzen da. Horrek azaltzen du beraz azken urteetan eratutako adopzioen kopuru txikia. Izan ere, adopzio nazionaleko itxaron zerrendak badaude, haurra adoptatzeko prozesuak lehen bezain beste urte irauten ez dituen arren. Adoptatzaileak badaude, baina adoptatzeko haur gutxi daude, eta hori berri ona da. Hala ere, aurretik azaldu bezala, asko dira oraindik ere babesgabetasuna pairatzen duten haurrak, eta asko dira adingabeen babes sistemaren hutsuneak.

5. EZTABAIDA: ADOPZIOAREN ETORKIZUNA

Asko izan dira azken urteetan adopzioaren inguruan sortutako eztabaidak, batez ere eremu profesionalean. Jatorriekiko loturak eta bizitzaren historiaren eraikuntzak haurren garapenean eta identitatearen eraikuntzan duten garrantzia mahaigaineratu da, eta adopzio irekiaren inplementazioak adopzioaren izaera bera ezbaian jarri du. Haurraren interes gorenaren printzipioari jarraituz, eta kontuan izanik jatorriekiko haustura totalak ondorio negatibo eta traumatikoak izan ditzakeela, desanparo egoeran dauden haur horientzako babes neurririk egokiena zein ote den zalantza sortzen zait. Adopzio irekia izango da adopzioaren etorkizuna? Edo familia harrera iraunkorrak ordezkatu du adopzioa? Beharbada, harreraren eta adopzioaren arteko babes neurri hibrido bat da irtenbiderik egokiena?

Galdera horiek guztiek gaurkotasun handia dute, eta erantzun guztiak bilatzeko asmorik gabe, baina eztabaidako elementu garrantzitsuenak mahaigaineratzeko helburuarekin, adopzio arloan lan egiten duten zenbait profesional elkarrizketatu ditut: Itxaso Martin, Gipuzkoako Foru Aldundiko harrera eta adopzio arloko gizarte langilea; Kontxi Alicostes, Lotuneko (Gipuzkoan adopzioa sustatzeko programa) psikologoa eta koordinatzailea; Amaia Berdonces, Lotuneko psikologoa; eta Oihana Lizarralde, Gipuzkoako Ume Alaia adopzio-familien elkarteko gizarte langilea.

Elkarrizketatu guztiek bat egin dute errealitatea konplexua dela esanez, kasu bakoitza desberdina baita, eta beraz, ezinezkoa da erantzun bakarra eta zurruna ematea. Horrek malgutasuna eskatzen du, bai legediaren aldetik, eta baita prozesuan parte hartzen duten pertsona guztien aldetik ere, batez ere profesionalei eta familia adoptatzaileei dagokienez.

Hala ere, zenbait ideia behin eta berriz mahaigaineratu dira, adingabeen babeserako ezinbestekotzat jotzen dituztenak: iraunkortasuna eta ziurgabetasunaren desplazamendua.

Iraunkortasunari dagokionez, garrantzitsuena haurraren babesa eta ongizatea izanik, ezinbestekoa da hausturak ahal den heinean ekiditea. Haurrak banaketa neurria behar duela baloratzen bada bere familiarik ateratzen da, eta larrialdiko harrera familia baten zaintzapean uzten da. Larrialdiko familia horretan dagoen bitartean, haurra jatorrizko familiara itzultzeko dauden aukerak baloratzen dira, eta horren arabera harrerara edo adopziora bideratu daiteke, izan ere, haur txikien kasuan hazteko eta babesteko ingurugirorik egokiena familia dela baloratzen da.

Beraz, prozesua honakoa litzateke: haurra jatorrizko familiarik atera eta larrialdiko familia batera bideratzen da, eta ondoren neurri iraunkorrago batera orientatzen da, harrera familia batera edo adopziora hain zuzen. Hori horrela, prozesu horretan zehar haurrak bi haustura jasaten ditu. Iraunkortasunaren ideiak bilatzen duena haurrak ahalik eta haustura gutxien izatea da, eta horretarako interesgarria litzatekeela uste dute Martin, Berdonces eta Alicostesek larrialdiko familia eta adoptatzailea (edota harrerakoa, orientazioaren arabera) familia berdina izatea. Modu horretan, babes neurria aldatu arren, haurra familia berean mantentzen da, bigarren haustura bat ekidinez.

Horrek ziurgabetasunaren desplazamendura garamatza ezinbestean. Familiak haurra zaintzeko konpromiso osoa hartzen du, etorkizunean jatorrizko familiara itzuliko den ala betirako bertan geratuko den jakin gabe. Horrela, ziurgabetasuna haurraren gain egon beharrean, eskaintza egiten duen familiaren gain jartzen da. Hori posible izan

dadin ezinbestekoa da familia harreragile edota adoptatzaileekin aurretiazko prestakuntza lan sakona egitea, haurraren garapen ahalik eta egokiena bermatzeko modu bakarra dela ohartarazteko.

Era berean, elkarrizketatu guztiak ados daude jatorrizko familiarekin harremana mantentzeak onura nabarmenak dituela haurraren. Hori horrela, lehen haustura edo banaketa hori egiten denean, lehentasunezkoa da haustura erabatekoa ez izatea, hau da, haurrak bere familiarekiko lotura guztiak ez etetea. Jakina da kasu guztietan ez dela posible, eta beste zenbaitetan ez dela haurraren babeserako egokiena, baina gehienetan onuragarria zaie hurrei, baita jatorrizko familiari eta harreragileari edo adoptatzaileari ere, bizi duten errealitatea ulertzen, kokatzen eta horren arabera jarduten laguntzen baitie.

Amaia Berdoncesen ustez etorkizunean familia harrerak protagonismo gehiago hartuko du, eta adopzioa bigarren plano batean geldituko da, desagertuko ez den arren. Are gehiago, Itxaso Martinen arabera, gaur egun Gipuzkoan familia harrerara orientatzen dira haur gehienak, eta gutxi batzuk soilik bideratzen dira adopziora. Hala ere, esan bezala, adopzioa babes neurri gisa mantenduko dela dio Kontxi Alicostesek, izan ere, zenbait kasutan haurren babeserako aukera posible bakarra izan ohi da: jatorrizko familiarik ez dagoenean edo ezezaguna denean, ospitalean bertan gurasoek haurrari uko egiten dietenean, edota jatorrizko familiak haurraren ongizatea arrisku larrian jar dezakeen kasuetan, adibidez. Nolanahi ere, aipaturiko egoera horiek salbuespenak direla azpimarratzen du Alicostesek, Gipuzkoan artatzen diren kasu gehienak zabarkeria kasuak izaten baitira.

Laburbilduz beraz, etorkizunean familiek harrerarako eta adopziorako eskaintza bateratua egitea bilatzen da, hau da, harrerarako edo adopziorako eskaini ordez, babesgabetasunean dagoen haur baten kargu egiteko eskaintza egingo dute, eta ezingo dute jakin etorkizunean haurra harrera iraunkorrean izango duten, adoptatu egingo duten, edota jatorrizko familiara itzuliko den. Hori horrela, haurrak ahal bezain testuinguru-aldaketa gutxien jasango ditu, ahalik eta haustura gutxien, eta bere egonkortasuna ahal bezain beste mantenduz. Era berean, jatorrizko familiarekin harremana ez galtzea lehenetsiko da, izan harrera mota desberdinen forman, edota adopzio irekiaren bitartez, kasuan kasu neurririk egokiena hautatuz. Babes neurriaren helburu nagusia haurra familia biologikora itzultzea izango da, eta beraz, hori posible izan dadin beharrezkoa izango da jatorrizko familiarekin esku-hartzea. Zenbait kasutan haurra familiara itzultzea ezinezkoa izan arren, familiarekin harremana mantentzea

lehenetsi beharko litzateke. Eta kontrara, esku-hartzeak emaitzak ematen baditu eta haurra bere familiara itzultzen bada, hausturak ekiditeko interesgarria izan daiteke harrera familiarekin harremana mantentzea.

Aipatutako ideia guztiak biltzen dituen proposamena da *plangintza konkurrentea* deiturikoa, iraunkortasunaren eta ziurgabetasunaren desplazamenduan oinarritzen den proposamena alegia. Zenbait herrialdetan indarrean dago, eta gaur egun Gipuzkoako harrera eta adopzioko atalean ikertzen ari dira, hemengo errealitatera nola egokitu daitekeen baloratzeko. Proposamen horrek ez ditu mahai gainean jarritako galderak erantzuten; kasu eta haur bakoitzera egokitutako babes neurriak aplikatzeko erraminta bat dela esan daiteke.

Martinen ustez hori da gaur gaurkoz jarduteko modurik egokiena. Hala ere, azken urteetan aldaketa asko eman diren bezala, datozen urteetan ere aldaketa eta eztabaida ugari etorriko dira, eta etengabe moldatzen eta hobetzen joan beharko du babes sistemak.

6. BIBLIOGRAFIA

6.1. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

- Alustiza, C. (d.g.-a). *Casa de Maternidad e Inclusa de Navarra*. Auñamendi Eusko Entziklopedia. <https://aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/es/casa-de-maternidad-e-inclusa-de-navarra/ar-157157/>
- Alustiza, C. (d.g.-b). *Casa Cuna de Fraisoro*. Auñamendi Eusko Entziklopedia. <https://aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/en/casa-cuna-de-fraisoro/ar-157140/>
- Agintzari (2016). *La postadopción en la Comunidad Autónoma del País Vasco: Claves para un abordaje estratégico del fenómeno de la postadopción*. http://adoptia.org/wp-content/uploads/2016/01/ADOPTIA_POST_cas.pdf
- Ararteko (2011). *Arrisku egoera berezietan dauden adingabeak*. <https://www.ararteko.eus/eu/arrisku-egoera-berezietan-dauden-adingabeak-0>
- Ararteko (2023). *Arrisku egoerak haurtzaroan eta nerabezeroan: erakunde bermatzaileen azterketa haurren eskubideen ikuspegitik*. <https://www.ararteko.eus/eu/arrisku-egoerak-haurtzaroan-eta-nerabezeroan-erakunde-bermatzaileen-azterketa-haurren-eskubideen-ikuspegitik>
- Boccio, M. J. (2015). *El derecho del niño a la familia natural como principio rector del sistema de protección. La actividad protectora de los poderes públicos en el ordenamiento español*. [Doktorego tesia, Universidad de Sevilla]. [https://idus.us.es/bitstream/handle/11441/25429/El derecho del ni%c3%b1o a la familia natural como principio rector del sistema de protecci%c3%b3n.pdf?sequence=1&isAllowed=y](https://idus.us.es/bitstream/handle/11441/25429/El%20derecho%20del%20ni%C3%B1o%20a%20la%20familia%20natural%20como%20principio%20rector%20del%20sistema%20de%20protecci%C3%B3n.pdf?sequence=1&isAllowed=y)
- Dávila, P. (2008). El largo camino de los derechos del niño: entre la exclusión y la protección. In A. Padilla, A. Soler, M.L. Arredondo y L.M. Moctezuma (coor.). *La infancia en los siglos XIX y XX. Discursos e imágenes, espacios y prácticas* (71-110. or.). México, Casa Juan Pablos – Universidad Autónoma del Estado de Morelos.
- Dávila, P., Zabaleta, I. eta Uribe-Etxebarria, A. (1991). *La protección infantil y los tribunales tutelares de menores en el País Vasco*. <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=87461>
- Esteban, L. (2013). Colegios e instrucción de niños moriscos en la ciudad de Valencia. *Studia philologica valentina*, (15), 87-105. <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=4541900>
- Eusko Jaurlaritz (2022). *Haurren eta nerabeen kontrako indarkeriari aurre egiteko euskal estrategia* 2022/25. https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/violencia-infancia/eu_def/adjuntos/ESTRATEGIAVASCA_VIOLENCIAINFANTIL_baja_eu.pdf
- García, E. (2021). *Mujeres de barro, infancias de cristal: Fraisoro, 1903-1985*. Manuel Larramendi Kultur Bazkuna.

- Gipuzkoako Foru Aldundia (2012). *Memoria del ejercicio 2012: Departamento de política social*.
<https://www.siiis.net/eu/buscar/?lookfor=memoria+politicas+sociales+gipuzkoa>
- Gipuzkoako Foru Aldundia (2016). *Gizarte politikak: 2016ko Memoria*.
<https://www.gipuzkoa.eus/documents/1932270/8cffee87-fd7a-3d7d-e12c-07b12ead2822>
- Gipuzkoako Foru Aldundia (2019). *Gizarte politikak: 2019ko Memoria*.
<https://www.gipuzkoa.eus/documents/1932270/636eb72e-e102-d306-3dfb-ee0dc04c8876>
- Gipuzkoako Foru Aldundia (2022). *Gizarte politikak: 2022ko Memoria*.
<https://www.gipuzkoa.eus/documents/1932270/e47ef684-cb92-7952-033f-acb41eac4cde>
- Gipuzkoako Foru Aldundiaren web orria. <https://www.gipuzkoa.eus/eu/gaiak/gizarte-zerbitzuak?cat=babesik-gabeko-haur-eta-nerabeak-32693226>
- Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmena, 1989ko azaroaren 20a.
https://www.unicef.es/sites/unicef.es/files/comunicacion/CDN_EUS.pdf
- Kutxa Fundazioa (2021eko martxoak 12). “*Mujeres de barro, infancias de cristal*” liburuaren aurkezpena. [Bideoa]. Youtube.
<https://www.youtube.com/watch?v=HNYIOyeyGRY>
- López, E. (2020). *La adopción abierta*. [Gradu Amaierako Lana] Universidad de Valladolid, Espainia. https://uvadoc.uva.es/bitstream/handle/10324/46953/TFG-D_01072.pdf?sequence=1&isAllowed=y
- López, S. (2017). *El sentimiento de abandono en niños adoptados*. [Master amaierako lana] Universidad de Valladolid, Espainia.
<https://uvadoc.uva.es/bitstream/handle/10324/27268/TFM-G734.pdf?sequence=1&isAllowed=y>
- Marí, S. (2016). Acción socioeducativa con familia e infancia en riesgo. In J. Quintanal y M. Melendro (coor). *Acción socioeducativa con colectivos vulnerables* (11-43. or.). Universidad Nacional de Educación a Distancia. <https://elibro-net.ehu.idm.oclc.org/es/ereader/ehu/48855?page=1>
- Martín, I. (2020). Reflexiones en torno al nuevo escenario de la adopción. *Zerbitzuan Gizarte Zerbitzuetako Aldizkaria*, (71), 37-51.
http://www.zerbitzuan.net/documentos/zerbitzuan/Reflexiones_nuevo_escenario_adopcion.pdf
- Martínez, M. A. (1996). *Gipuzkoa en la vanguardia del reformismo social: beneficencia, ahorro y previsión (1876-1936)*. Kutxa Fundazioa.
- Munduko Osasun Erakundea (2022). *Maltrato infantil*. <https://www.who.int/es/news-room/fact-sheets/detail/child-maltreatment>

- Palacios, J. (2007). Después de la adopción: necesidades y niveles de apoyo. *Anuario de Psicología*, 38(2), 181-198. <https://revistes.ub.edu/index.php/Anuario-psicologia/article/view/8422/10397>
- Reglamento General de Expósitos para la Provincia de Guipúzcoa* (1916). Imprenta de la Provincia. <https://w390w.gipuzkoa.net/WAS/CORP/DBKVisorBibliotecaWEB/visor.do?r&amicus=166197>
- Rodríguez, A. E. (2016). Sistema de protección y acogimiento residencial. In J. Quintanal y M. Melendro (coor). *Acción socioeducativa con colectivos vulnerables* (44-71. or.). Universidad Nacional de educación a Distancia. <https://elibro-net.ehu.idm.oclc.org/es/ereader/eHu/48855?page=44>
- Román, M. eta Palacios, J. (2011). Separación, pérdida y nuevas vinculaciones: el apego en la adopción. *Acción Psicológica*, 8(2), 99-111. <https://www.redalyc.org/pdf/3440/344030766008.pdf>
- Rosser, A. eta Berástegui, A. (2017). Retos y dificultades para la implantación de la adopción abierta en España. El papel de la mediación. *Mediaciones Sociales*, (16), 175-191. https://repositorio.comillas.edu/xmlui/bitstream/handle/11531/24408/2017_mediacionessociales.pdf?sequence=1&isAllowed=y
- Ruiz-Berrio, J. (1976). El método histórico en la investigación histórica de la educación. *Revista Española de Pedagogía*, 34(134), 449-475. <https://www.revistadepedagogia.org/rep/vol34/iss134/1/>
- San Román, B. (2021). *Fundamentos y prácticas de la adopción contemporánea*. Editorial UOC. <https://elibro-net.ehu.idm.oclc.org/es/ereader/eHu/174549>
- Sánchez, C. (2017). *El sistema de protección a la infancia y la adolescencia (Análisis crítico desde la perspectiva de su eficacia para evitar la exclusión social)*. Tirant lo Blanch. biblioteca-nubedelectura-com.ehu.idm.oclc.org/cloudLibrary/ebook/show/9788491439295
- Sánchez, V. eta Guijarro, T. (2002). Apuntes para una historia de las instituciones de menores en España. *Revista de la Asociación Española de Neuropsiquiatría*, (84), 121-138. https://scielo.isciii.es/scielo.php?script=sci_arttext&pid=S0211-57352002000400006
- Sánchez-Sandoval, Y. eta Palacios, J. (2012). Problemas emocionales y comportamentales en niños adoptados y no adoptados. *Clínica y Salud*, 23(3), 221-234. <https://dx.doi.org/10.5093/cl2012a14>
- Uribe-Etxebarria, A. (1994). Haurtzaroaren babesaren instituzionalizatzeko prozesua Euskal Herrian (1900-1930). *Tantak, EHuko Hezkuntza Aldizkaria*, (11), 97-112.
- Uribe-Etxebarria, A. (2002). Gipuzkoako Fraisoro sehaska etxea: Haur abandonatuen trataera XX. mendean lehenengo hamarkadetan. *Hik Hasi: Euskal heziketarako aldizkaria*, (67), 39-42.

<http://zaharra.hikhasi.eus/Artikuluak/20020401/historiako-zertzeladak-gipuzkoako-fraisoro-sehaska-etxea-haur-abandonatuen-trataera-xx-mendearen-lehenengo-hamarkadetan>

Uribe-Etxebarria, A., Fernández, I. B., Otaño, J., Arandia, M., Alonso, M. J., Agirre, N., Remiro, A. eta Beloki, N. (2009). Una visión histórica y comparativa actual sobre los sistemas de atención a la infancia desprotegida en la Comunidad Autónoma del País Vasco. In M. R. Berruezo y S. Conejero (coor). *El largo camino hacia una educación inclusiva: la educación especial y social del siglo XIX a nuestros días: XV Coloquio de Historia de la Educación, Pamplona-Iruñea, 29, 30 de junio y 1 de julio de 2009* (463-476. or.). Nafarroako Unibertsitate Publikoa.
<https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=2964146>

Valverde, L. (1994). *Entre el deshonor y la miseria: infancia abandonada en Guipúzcoa y Navarra, siglos XVIII y XIX*. Euskal Herriko Unibertsitatea.

Varela, R., Méndez, A. eta Carvajal, S. (2019). *Acogimiento y adopciones desde la teoría sistémica: Planificación en Trabajo Social*. Colegio Profesional de Trabajo Social de Sevilla.

6.2. LEGEAK

21/1987 Legea, azaroaren 11koa, Kode Zibilaren eta Judiziamendu Zibilari buruzko Legearen zenbait artikulua, adingabekoen adopzioari eta beste babes mota batzuei buruzkoak, aldarazi dituena. (BOE, 275 zk., 34158-34162 or.).

1/1996 Lege Organikoa, urtarrilaren 15koa, Adingabeen Babes Juridikoari buruzkoa, Kode Zibila eta Judiziamendu Zibilari buruzko Legea zati batez aldarazi dituena. (BOE, 15 zk., 1225-1238 or.).

5/2000 Lege Organikoa, urtarrilaren 12koa, adingabeen erantzukizun penala arautu duena. (BOE, 11 zk., 1422-1441 or.).

3/2005 Legea, otsailaren 18koa, haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babestekoa. (EHAA, 59 zk.).

12/2008 Legea, abenduaren 5koa, Gizarte Zerbitzuei buruzkoa. (EHAA, 246 zk., 31840-31924 or.).

114/2008 Dekretua, ekainaren 17koa, Foru Aldundiek adingabeen adopzioaren arloan jarraitu beharreko jarduna arautzen duena. (EHAA, 122 zk., 17087-17110 or.).

131/2008 Dekretua, uztailaren 8koa, gizarte babesik gabeko haur eta nerabeentzako egoitza harrerako baliabideak arautuko dituen dekretua. (EHAA, 150 zk., 20515-20600 or.).

230/2011 Dekretua, azaroaren 8koa, BALORA-Euskal Autonomia Erkidegoan haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko udaleko eta lurraldeko gizarte-zerbitzuetan arrisku-egoeren larritasuna balioesteko tresna onesten duena. (EHAA, 233 zk.).

8/2015 Lege Organikoa, uztailaren 22koa, Haurrak eta Nerabeak Babesteko Sistema aldatzen duena. (BOE, 175 zk., 61871-61889 or.).

26/2015 Legea, uztailaren 28koa, Haurrak eta Nerabeak Babesteko Sistema aldatzen duena. (BOE, 180 zk., 64544-64613 or.).

152/2017 Dekretua, maiatzaren 9koa, Euskal Autonomia Erkidegoan haurrak eta nerabeak zaintzeko eta babesteko udal- eta lurralde-mailako gizarte-zerbitzuetan arrisku- eta desanparo-egoeren larritasuna balioesteko Balora tresnaren eguneraketa onesten duena. (EHAA, 125 zk.).

179/2018 Dekretua, abenduaren 11koa, Euskal Autonomia Erkidegoan familia-harrera arautzen duena. (EHAA, 254 zk.).

8/2021 Lege Organikoa, ekainaren 4koa, Haurrak eta Nerabeak Indarkeriatik Begiratzeko Babes Integralarena. (BOE, 134 zk., 68657-68730 or.)

Haurren Eskubideen Aldarrikapena, 1959ko azaroaren 20a.
https://www.observatoriodelainfancia.es/ficherosoia/documentos/33_d_DeclaracionDerechosNino.pdf

Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmena, New York, 1989ko azaroaren 20a.
https://www.unicef.es/sites/unicef.es/files/comunicacion/CDN_EUS.pdf

Kode zibila. (BOE, 206 zk., 1889ko uztailaren 25a).

7. ERANSKINAK

Eranskina I. Elkarrizketetan egindako galderak.

1. Adopzioaren arloan aritzen den profesionala zara. Azaldu mesedez zein den zure lana.
2. Azken urteetan garapen handia eman da adopzioaren inguruko ulerkeran, batez ere eremu profesionalean eman diren eztabaiden ondorioz. Jatorriekiko loturak eta bizitzaren historiaren eraikuntzak haurren garapenean eta identitatearen eraikuntzan duten garrantzia mahaigaineratu da, eta adopzio irekiaren inplementazioak adopzioaren izaera bera ezbaian jarri du. Nola ikusten duzu hau? Zein ondorio izan ditu horrek guztiak?
3. Haurren interes gorenaren printzipioa jarraituz, eta kontuan izanik jatorriekiko haustura totalak ondorio negatibo eta traumatikoak izan ditzakeela, zein da desanparo egoeran dauden haur horientzako babes neurririk egokiena? Adopzio irekia izango da adopzioaren etorkizuna? Edo familia harrera permanenteak ordezkatu du adopzioa? Beharbada, harreraren eta adopzioaren arteko babes neurri hibrido bat da irtenbiderik egokiena?